

Irakaskuntza helburuak

Gradu honen helburu nagusia gradudun egokigarria, telekomunikazioaren arlorako balioaniztuna eta orotariko prestakuntza duena prestatzea da. Horretarako, graduak oinarri zientifiko eta teknologiko sendoak emango dizkio ikasleari, arrakasta izateko ziurtasuna izan dezan, berezko jarraipena den Telekomunikazio Ingeniartzako master titulura bideratzeko ikasketetan sartzerakoan ez ezik, bere bizitza profesionalean zehar jasotzen duen edozein prestakuntza espezializatutarako ere bai.

Titulazio honetako gradudunek telekomunikazio ingeniari teknikoaren lanbide arautuan jarduteko eskumenak jasoko dituzte.

Gradua orotarikoa da, eta zuzeneko sarbidea ematen du Telekomunikazio Ingeniartzako masterrera, hau da, telekomunikazio ingeniariaren lanbiderako araututa dauden eskumen guztiak ematen dituen masterra egiteko.

Ikasten diren gaiak

- Konputagailuak, programazioa.
- Zirkuitu elektronikoak, sistema elektroniko digitalak, teknologia eta osagai elektroniko eta fotonikoak, zirkuitu eta sistema elektronikoen diseinua, instrumentazio elektronikoa.
- Transmisio seinale, zirkuitu eta bideen tratamendua, sareen arkitektura, transmisio seinale eta sistemak, euskarri fisikoaren bidezko transmisioa.
- Irrati-komunikazioa, komunikazio sistema eta zerbitzuak.

Kredituen koadroa

Kreditu kop. guztira: 240 ECTS

Irakasgai modulua	Eskainitako kredituak	Egin beharreko kredituak
Oinarrizko prestakuntza	69 ECTS	69 ECTS
Oinarrizko prestakuntzan sakontzea	15 ECTS	15 ECTS
Teleko. adarraren gai komunak	78 ECTS	78 ECTS
Espezialitatea	126 ECTS	42 ECTS
Hautazkotasuna	48 ECTS	18 ECTS
Gradu amaierako lana	12 ECTS	12 ECTS

ECTS: European Credit Transfer System (Kreditu Transferentziako Europar Sistema)

Irtenbide profesionalak



Graduaren helburu nagusia telekomunikazio ingeniari baten eskumen guztiak ematen dituen masterreko sarbidea prestatzea bada ere, titulu honen proposamena guztiz bateragarria da lau urtegarrenean lan merkatuan sartu ahal izango diren gradudunak prestatzearekin.

Lan merkatuak orotariko prestakuntza duten profesionalak eskatzen ditu, entretenimendurako sistema telematikoak, multimedia zerbitzuak, garraio sareak eta abar diseinatzeko gai direnak. Telefoniarako, komunikabideetarako, aeronautikarako, telekomunikaziorako eta abar komunikazio sistemak ezartzeko gai diren profesionalak ere eskatzen ditu. Azkenik, eremu elektronikoak erabateko garrantzia du aplikazio hauetan eta teknologiarekin lotuta dauden beste batzuetan behar diren tresna guztiak garatzeko.

